

ARTEA. Bihartik hilaren 19ra joera berrien gunea izango da

Profesionalak erakartzea da aurtan ere ARCOren xedea

«Ikuskizun baino gehiago bilgune izatea» nahi du Gomez Baezak



Erredakzioa | **DONOSTIA**

Aurtan ere profesionalak eta horien artean batez ere nazio-arteko artearen bildumazaleak erakartzeko helburuarekin zabalduko ditu ARCOk ateak, Rosina Gomez Baeza arte garaikideko azokako zuzendariak adierazi duenez: «Madrilgo hitzordua arte munduko jende askorentzat garrantzitsua da jada, eta hori aurrerapauso handia da. Hala ere, gustuko genuke atzerriko bildumazale gehiago erakartzea, eta hori izango da gure helburu nagusia. Oraindik ere bertakoek leku gehiago dute atzerrikoek baino. Herrialde orotan gertatzen da gertuko arteari gehiago begiratzeara».

Iaz 170.000 pertsona inguru izan ziren ARCON, eta aurtan beste hainbeste izatea espero dute antolatzaileek. Baina azokako zuzendariak dioenez, kopurua baino garrantzitsua goa da bisitariak zein diren: «Profesionalak, galeristak, bildumazaleak eta ikusle interesa-

tua erakarri nahi ditugu batez ere. Ez zaigu horrenbeste interesatzen kuriositatez etortzen den jendea, ARCO ikuskizun gisara hartzen duen bisitaria. Harremanak eta salerosketak dira garrantzitsuak».

Gaur izango du lehen eguna ARCOk, eta hilaren 19ra arte 274 galeriak bertara eramandako lanak izango dira ikusgai. Horietan abangoardia historikoak, arte modernoa, egungoa, esperimentala eta sortzen ari diren joera berrienek izango dute lekua. Pintura, eskultura, instalazioak, argazkigintza, bideoak eta euskarri berriak erabiliz egindako artelanak elkarren ondoan egongo dira.

Artisten elkargune

«Iritziak trukatzeko dituzte artistek egunotan, eta irizpide ezberdinei buruzko eztabaida sutuak izango dira. Hori da mundu honetatik gehien erakartzen naueana. Inoiz ez da ARCO lasairik egongo, eta ez nuke holakorik gertatzerik nahi». Artelan garaikideen egi-

leak hantxe izango dira, euren obrari buruz mintzatzeko prest, eta horien artean egongo dira zortzi euskal galerietatik joandako euskal artistak.

Erakustazokaren indarra handituz doan arren, Gomez Baezaren kezketako bat da Espainiako inbertsoreek artearen inguruan duten interes urria: «Espainiako enpresariak beste herrietan baino gutxiago inbertitzen dute. Erresuma Batuan edo Holandan, esate baterako, erakunde pribatuak heziketa zentroetan eta beste hainbat jardueratan inbertitzen dute».

Hain zuzen, Erresuma Batua izango da aurtengo gonbidatu berezia, eta «interes berezia eragingo» duela dio azokako zuzendariak: «Berrikuntza izango da batez ere Erresuma Batuek ARCOra ekarriko duena. Bertako artearen egitura osoa ezagutzeaz gainera, joera berritzaileenak izango dira bereziki. Izena duten artistak izango dira, baina batez ere ezezagunak nagusituko dira».

LAGUNAREN



Guggenheimen Lagunen Elkarteak beste 20 kide ditu

Adin nagusiko 20 bizkaitarrek Guggenheimen Lagunen karneta jaso zuten atzo Bilboko museoan, Sabin Intxaurrea Justizia eta Lan sailburuaren eskutik. Bertan Bilboko Erakustazokan abenduan egin zen FERIA Nagusiko lehiaketako irabazleak saritu zituzten. Helburu nagusia jende adindunari artearen mundua ezagutaraztea dela azaldu dute ekimenaren antolatzaileek. Hala, besteak beste, doako bisita gidatuak eskainiko dizkiete.

ARTEA

Pablo Pagolak irabazi du Sex Haizegoaren Pintura Erotikoko Lehiaketa

Pablo Pagola Mateoren *La mirada del otro* lanak irabazi du Sex Haizegoa elkartearen Pintura Erotikoko Lehiaketa, eta bigarren saria Koldo Gojenolaren *El abrazo de la Lamia* lanarentzat izan da. Irabazleak 120.000 pezeta jasoko ditu (5.000 libera inguru), eta bigarrenak 50.000. Berrogeita lau lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta 20 izan dira finalista. Hilaren 28ra arte El Meson de la Navarrería tabernan jarriko dituzte aurkeztutako lan batzuk.

ARTEA

Libero Baddi artista eta akademikoa hil da

Libero Baddi artista eta akademikoa joan den igandean hil zen, 85 urte zituela, Buenos Airestik gertu dagoen erietxe batean. Italian jaio zen, baina 11 urte zituenetik Argentinan bizi izan zen, eta sari garrantzitsuak irabazi zituen. Era askotako artelanak egin zituen, genero eta joera guztietakoak: marrazkia, grabatua, eskultura...; figuratibismoa, espresionismoa, kubismoa, abstrakzioa, sinbolismoa... Azken aldian eskultura *siniestrak* egin zituen batik bat Baddik.

ARTEA

Sergio Prego artista bilbotarrak 'Yesland, I'm here to stay' bideo instalazioa paratu du Bartzelonan

Royal wedding filma oinarritzat hartuta osatu du Sergio Prego artista bilbotarrak Bartzelonako Caixa fundazioaren Montcada aretoan jarri duen bideo instalazioa. Hala, pelikulan legez, gelako hormetatik eta sabaitik oinez ibil daitekeen protagonista ageri da *Yesland, I'm here to stay* izenburuko bideo instalazioan. Obra horretan kultura herrikoia etengabeko erreferentziak daude, baita komikietako heroienak ere. Halaber, Montcada aretoko gela margotu du Pregok, ikusleari zientzia-fikziozko paisaiak gogora ekartzeko asmoz.

IRAGARKI MERKEAK



943 300 222

33 x 33 mm

**33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)**

Eguna: **2.200**
Astea (6 egun): **1.900**
2 aste (12 egun): **1.600**
Hilabetea (24 egun): **1.200**

**70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)**

Egun: **6.000**
Astea (6 egun): **4.600**
2 aste (12 egun): **4.200**
Hilabetea (24 egun): **3.000**

33 x 33 mm

**33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: **3.000**
Astea (6 egun): **2.300**
2 aste (12 egun): **2.100**
Hilabetea (24 egun): **1.500**

Lete

itzulpenak
egokitzapenak

administrazioa • publizitatea
enpresak • filmak • liburuak
zuzenketak

Tel.: 943 515 346
Faxa: 943 521 380